

Donostiako Sustapenak eta CEITek bat egin dute hirirako talentua erakartzearen eta tokiko enpresen lehiakortasuna hobetzearen alde.

Bi erakundeek lankidetzeta-hitzarmen berri bat sinatu dute gure hirian langile kualifikatuak atxikitzen eta erakartzen laguntzeko, ezagutza transferitzeko - bonu teknologikoen bidez- tokiko enpresa-sarearen lehiakortasuna bultzatzeko, eta CEITek lan egiten duen eremuan proiektu berriak sustatzeko.

Ekonomia Bultzatzeko zinegotzi Marisol Garmendiak adierazi zuenez, "Hitzarmen honekin, CEIT bezalako hiriko erreferentziatzko teknologia-zentroekin batera egiten ari garen lanari jarraipena ematen diogu, Donostiaren ezaugarri bihurtzen ari den zientzia eta berrikuntzako ekosistema bat sendotzeko. Horretarako, talentua lokalizatu, erakarri eta atxikitzen dugu, eta zentroetatik tokiko enpresa-sarera eramaten dugu ezagutza".

Donostiako Sustapenak eta CEITek talentua erakartzeko eta garatzeko elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu dute, langileak zentro teknologikoan sartzeko aukerak identifikatuz. Plaza profesional horiek Donostiako Sustapenak antolatuko duen Gazte Talentuaren Azokaren eskaintzaren parte izango dira. Halaber, Bono Teknologikoa aktibatuko dute berriro, CEITek Donostiako ETEei eskaini diezaiekeen ikerketa teknologikoko zerbitzuen katalogo bat garatuta.

Hezkuntzaren arloan, bi erakundeek bokazioak sustatzen lagunduko dute, fabrikazio aurreratuan, mugikortasunean, jasangarritasunean eta digitalizazioan, CEIT erreferente den aldetik.

Ekintzailetzari dagokionez, CEITek Donostia Sustapenaren start up-etarako Ekin+ azelerazio-programara bideratzeko proiektuak identifikatuko ditu. Udal-sozietate horrek, bestalde, ekintzailetza-gaitasunak garatzen lagunduko die CEITeko ikertzaileei, prestakuntza-jardueren bidez.

Hitzarmen horrekin, CEITek Donostia Weekinnen parte hartuko du berriro, zientziaren dibulgazioari eta bokazio zientifikoaren sustapenari buruzko edukiekin. Hitzarmenak jasotzen duen beste lan-ildo bat Next Generation eta Horizon Europe funts berrien esparruan ikerketa-proiektuen aurkezpenarekin lankidetzan aritzeko aukerak batera aztertzea da.

Donostiako Sustapenak eta CEITek lankidetzeta estua dute duela urte batzuetatik, hainbat hitzarmen eta programaren bidez.

